

ZOKKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea, zozketaren eremua eta saria

Caja Laboral Popular S. Coop. kooperatiba-sozietateak —aurrerantzean, LABORAL Kutxa—, egoitza soziala Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500— duenak, zozketa bidezko sustapena egingo du; hain zuzen, 200 €-ko 3 sari zozkatuko ditu, sustapenak irauten duen bitartean, hau da, 2017ko azaroaren 24tik abenduaren 24ra bitartean "aurrezteko ideiak" ematen dituzten bezeroen artean.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxaren blogean eta Facebookeko eta Twitterreko kontuetan "aurrezteko ideiak" partekatzen dituzten 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek hartuko dute parte zozketan. Kontua irekitzen den datan egiaztatutako beharko da gutxieneko adina.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

4.- Zozketaren data

200 €-ko 3 sari zozketa ausazko sistema informatiko bidez egingo da, ezarritako epean zozketaren baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen artean:

- 2017ko azaroaren 24tik abenduaren 24ra bitartean, biak barne, "aurrezteko ideiak" partekatzea LABORAL Kutxaren blogean eta Facebookeko eta Twitterreko kontuetan.

2017ko abenduaren 27an egingo den 200 €-ko 3 sari zozketan hartuko dute parte.

5.- Irabazleak

NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango, eta irabazleek, LABORAL Kutxaren bezero badira, egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetezko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

Irabazleek saria eskuratu nahi badute eta, LABORAL Kutxaren bezero izanda ere, ez badute AURREZKLIK &... konturik irekita, jakinarazpena jasotzen dutenetik 5 egun baliouduneko epean ireki beharko dute.

Irabazleak LABORAL Kutxaren bezero ez badira eta saria eskuratu nahi badute, LABORAL Kutxaren bulego batera joan beharko dute, bezero egitera, eta AURREZKLIK &... kontu bat ireki beharko dute, jakinarazpena jaso dutenetik 7 egun baliouduneko epean.

Gainera, zozketan ordezkotako 4 izen aterako dira, badaezpada, irabazleetako batek baldintzak betetzen ez baditu ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroen datuak erabiliz saridunen batekin harremanetan jartzerik ez badago zozkatze-dataren ondorengo 10 egun balioudunetan, saria ordezkotzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

LABORAL Kutxak egoki deritzen moduan eta lekuan emango du saria.

6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Zerga-egozpen hori AURREZKLIK &... kontuaren titular guztien artean banatuko da. LABORAL Kutxak ez du sariaren eragin fiskala bere gain hartuko; irabazlearen kontura izango da.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, bere izen-abizenak argitaratzeko baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Irabazleak bere izen-abizenak argitaratzeko baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkotari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.

